

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Tokiko gobernu batzarren ebazpenaren laburpena, zeinaren bidez 2023an aisialdiko begirale eta aisialdiko zuzendari titulu ofiziala ikasteko beken deialdia egiten baita**

BDNS (Identif.): 711042.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/711042>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Amurrión erroldatutako eta 2023an aisialdiko begirale eta aisialdiko zuzendari titulu ofiziala lortzeko ikasten bukatu duten edo tituluok lortu dituzten pertsona fisikoak.

#### **Bigarrena. Helburua**

Deialdi honen helburua da arautzea Amurrioko herritarren artean euskarazko aisialdiko begirale eta aisialdiko zuzendari titulu ofiziala ikastea sustatzera bideratutako norgehiagoka bidezko dirulaguntzak.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Behin betiko onetsi dira, dirulaguntzak arautzen dituzten gainerako oinarriekin batera, eta haien eduki osoa 2023ko otsailaren 24ko ALHAOn argitaratu zen.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdia 2.050,00 euroekin dago hornituta.

#### **Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea**

2023ko urriaren 1etik 31ra.

Amurrión, 2023ko abuztuaren 2a

*Alkatea*

*JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*